

ONGI

Gure zerbitzua aplikazio bat denez, dohainik deskargatzeko aukera emango dugu edonork deskarga dezan. Mugikorra edota internetera sartzeko baliabideak dituenak gure aplikazioa kosturik gabe erabil dezake. Hori dela eta, gure prezioa 0 eurotan mantenduko da. Bestalde, gure ideia merchandising-a saltzea denez, haren prezioa 10 eurotan finkatuko genuke. Hala ere, eskaintza-eskariaren arabera alda daiteke.



Horrekin jarraituz, gure irabaziak ez dira gure bezero kopuruen araberakoak. Izan ere, esan bezala haiek ez dute gure proiektua finantziatzen. Gure intenzioa donazioekin, merchandisingarekin eta Gobernuaren laguntzekin dirua lortzea da gure soldatak eta gure bulegoa mantendu ahal izateko. Horregatik, ezinezkoa egiten zaigu gure puntu hila kalkulatzeko.

Azkenik, diru sarrera motei dagokienez, jatorriaren arabera mota desberdinekoak izango dira. Alde batetik, donazioak ordainketa bakarrekoak edota errepikariak izan daitezke.



Hauek egiten dituztenak harpidetza bidez egin ahal dituzte eta hileroko diru kopuru bat eman, edo erabakitzen duten bakoitzean donazioa egin. Gainera, gure aplikazioan agertzen diren enpresen publizitateen diru sarrerak izango ditugu, baita gure produktuen salmentarekin lortutakoa.